



**EBAZPENA, 2022KO EKAINAREN 10EKOA, JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ 2022KO ABENDUAREN 31RA ARTE LUZATZEN BAITA JOKO MAKINEN USTIAPEN-BAIMENAK ETETEKO ALDIA.**

COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko, jokoaren sektoreko presako neurriei buruzkoa den ekainaren 30eko 84/2020 Dekretua eman zen, COVID-19 pandemiaren ondorioz joko presentzialaren jarduerak geldiarazi eta indarrean zeuden joko-makinen ustiapen-baimenak modu faktikoan eten ondoren, etete horrek jokoaren sektorean izan zuen eragin ekonomikoa arintzeko xedez. Dekretu horri esker, makinen ustiapen-baimenen eraginkortasuna aldi batez, 2020ko irailaren 30era arte, eten zen eta epe hori, Joko eta Ikuskizunen zuzendariaren Ebazpen baten bidez, berriz ere 2021ko abenduaren 31ra arte luzatu zen. Ondoren, martxoaren 16ko 108/2021 Dekretuak, zeinaren bidez jarraipena ematen baitzaie joko-sektorean COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko ezarrita dauden neurriei, etenaldi horiek 2021eko abenduaren 31ra arte luzatu zituen, edukiera-mugekin eta lokalen itxierarekin lotuta indarrean zeuden murrizketen ondorioz.

2022ko otsailaren 16an 19/2022 Dekretua indarrean sartu zen, otsailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen dekretua aldatzen duena. Dekretu horrek bere hamargarren xedapen iragankorrean COVID-19aren aurkako presako neurriak jasotzen ditu eta ezartzen du 2021eko abenduaren 31n etenda zeuden joko-makinak ustiatzeko baimenek automatikoki etenda jarraituko dutela 2022ko ekainaren 30era arte eta Jokoa Arautzeko Agintaritzak, ebazpen baten bidez, baimenak etenda egoteko epe hori 2022ko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango duela.

Kontuan hartzen bada oraindik ere guztira dauden 12.939 ustiapen-baimenetatik 1.033k etenda jarraitzen dutela eta 887 COVID-19aren ondorioz itxita jarraitzen duten lokaletako ostalaritzamakinei (BH) dagozkiela, egokitzat jotzen da etetearen ondorioak 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzea.

**ZUZENBIDE-OINARRIAK**

**Bakarra.-** Otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen dekretua aldatzen duenak, hamargarren



xedapen iragankorrean COVID-19aren eraginaren aurkako presako neurriak ezartzen ditu:

*“1. 2021eko abenduaren 31n etenda dauden joko-makinak ustiatzeko baimenak etenda egongo dira 2022ko ekainaren 30era arte. COVID-19aren pandemiak sortutako ezohiko egoerak irauten badu, Jokoa Arautzeko Agintaritzak, ebazpen baten bidez, baimenak eteteko egoera luzatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen denborarako, eta ondoz ondoko luzapenak egin ahal izango ditu 2022ko abenduaren 31ra arte.*

*2.- Egun horretara arte, ustiapen-baimenaren titularrak etendura kentzeko eskatu ahal izango du hura ustiatzea eragozten duten baldintzak desagertzen direnean, eta etendura berriz eskatu ahal izango du baldintza horiek berriro gertatzen badira. Ustiapen-baimenaren titularra ez bada baimen horren babesean makina ustiatzen ari den lokalaren titularra, kokatze-buletina sinatzen duten pertsonetako edozeinek eskatu ahal izango du etendura kentzeko. Ustiatzeko baimen baten etendura kentzeko edo etendura berria jartzeko eskatu ondoren, gutxienez 7 egun eman beharko ditu egoera horretan.*

*3.- Neurri horiek 2022ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.”*

Horregatik guztiagatik, aipatutako araudia zein aplikagarri diren beste guztiak IKUSITA, eta Segurtasun Saileko egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.** - Joko-makinak ustiatzeko baimenak aldi batez eteteko aldia 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzea, otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen dekretua aldatzen duenak, hamargarren xedapen iragankorrean aurreikusten dituen ondorioekin.



**Bigarrena.** - Ebazpen hau interesdunei, Foru Aldundiei eta Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateari jakinarazi behar zaie.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.-**

Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Segurtasuneko sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 10a

Aitor Uriarte Unzalu  
Joko eta Ikuskizunen zuzendaria  
Sinadura digitala